EUSKAL HERRIKO
LABORANTZA GANBARA

**PRENTSAGIRIA**
Ainiza Monjolose, 2022ko apirilaren 15a

# 2022/05/07 : Mixel Berhocoirigoinen omenezko eguna

**2022ko maiatzaren 7an, larunbata, egun berezia iraganen da Ainiza Monjolosen joan den urtarrilean antolatu ezin izan dugun EHLGren 17. urtebetetzea ospatuko baitugu. Haatik, urtebetetze hau arrunt berezia izanen da, Mixel Berhocoirigoin pausatu zela urtebetea ere baita.**

Jadanik urte bat ! Hutsune bat utzia du, ez da dudarik, bainan aitzina segitzeko gako anitz ere eman dauzkigu. Hori azpimarratu nahi dugu eginen diogun omenaldiaren bitartez.

Bere biziko hainbat etapa eta laborantxan, Euskal Herrian eta munduko herritar bezala egin dituen ekarpen, ekintza eta gogoetak aipatuko ditugu irudi, idatzi eta lekuko batzuen bidez.

Omenaldi hau izan dadila beraz, Mixel eta beste hainbestek mundu hobe bat eraikitzeko egin pausuen adierazle eta belaunaldi berrien inspiratzaile.

Goizeko ekitaldiaren ondotik, egunak segituko du usaiako bazkari herrikoiarekin (25 €/eusko).

## ° MENUA : 25 €/euskotan°

Salda

Axuria kooperatibako axurkia suan errea ilarrekin

CLPB kooperatibako Ossau-Irati sormarkako gasna

Herriko irinarekin egindako bixkotxa eta ogia

Irulegi sormarkako arnoa, kafea eta ondokoa

* Nahi dutenek, haragirik gabeko bazkaria ukaiten ahal dute aitzinetik galdeginez gero (20 €/eusko).

Bazkariko lekua erreserbatzea gomendatua da :

- 05 59 37 18 82 zenbakira deituz
- Izena linean emanez : ehlgbai.org/agenda

Arratsean pestak segituko du, kontzertuekin :

**BOKALE BRASS BAND**

**KURTNEY BARNETX**

**PELAX**



**FUSIBLE**

**WILLIS DRUMMOND**

**DJ XA2**

**DJ BIXTÜK**

---

**Euskal Herriko Laborantza Ganbara**
Zuentzat – 64 220 Ainiza Monjolose
Tel/ 05 59 37 18 82
www.ehlgbai.org
laborantza.ganbara@ehlgbai.org

Facebook | Youtube